

28.3. Ni zainduz, zu zainduz, gu zainduta

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun batzordeak zaintza-lanen balioari buruz kontzientziazteko kanpaina jarri du abian.

Nafarroan zaintza-lanak emakumezkoen jarduera izaten jarraitzen du. Emakumeen % 91,3k eguneko lau ordu baino gehiago ematen du etxeko lanetan eta familia zaintzen; gizonzkoen % 75,9k, berriz, bi ordu eta erdi, besterik ez. Gizonezkoek parte-hartze eta dedikazio portzentaje handiagoa izaten dute ordaindutako lanetan, ia zortzi ordu; emakumezkoek, berriz, sei ordu eta erdi. Ez dugu ahaztu behar soldata-arrakala, izan ere, emakumeek gizonen baino % 28,4 gutxiago kobratzen dute.

Emakumeek, diru-sarreraren pobrezia gehiago jasateaz gain, **denbora pobrezia** handiagoa ere jasaten dute. Zer esan nahi du horrek? Emakumeak, gizonak baino askoz proportzio handiagoan aritzen direla etxeko lanetan eta zaintza lanetan. Horrek beren buruari eskaintzen dioten denboraren murrizketa nabarmena dakar, hala nola, atsedenerako, aisialdirako edo prestakuntzarako. Denbora ongizatearen adierazleetako bat da, eta denbora falta adierazten duen kontzeptu horrek agerian uzten du denboraren erabileran emakumezkoen eta gizonzkoen artean dagoen ezberdintasun-arrakala.

Familia unitateko kide guztiek, bereziki gizonzkoek, zaintza lanak berdintasunez banatu beharko lituzkete, horrek maskulinitatearen agindu kulturala kolokan jartzea esan nahi badu ere; bestetik, egungo sozializazio prozesuek sexuen araberrako lan-banaketa betikotzera ekarri dutela errekonozitzea beharrezkoa da. Izan ere, horren ondorioz etorri dira emakumezkoen aisialdian, baldintza ekonomikoetan eta lan-aukeretan murrizketak. Beraz, prozesu horiek eraldatzeko esku-hartzea beharrezkoa da.

Kanpainaren helburua da jendea ohartaraztea zaintza lanen garrantziaz. Zaintza lanak ezinbestekoak baitira eguneroko bizitzaren funtzionamendurako eta pertsona guztien ongizaterako. Erabateko garrantzia dute, eta beharrezkoa da, gainera, elkar zaintzea eta zaintza-lanak berdintasunez banatzea, bizitza on bat izateko.

